# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSASUN SAILA

## 1395

*EBAZPENA, 2013ko otsailaren 13koa, Osasun Publikoko zuzendariarena, «ECC-Evaluación y Control de Contaminantes, S.L.» sozietateak emandako maila gaituko ikastaroa gainditu duten ikasleei ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden maila gaituko aplikatzaile txartelak banatzeko baimena ematen duena (ikastaro hori Erandion eman zen, 2013ko urtarrilaren 14tik 25era).*

Ikusi da «ECC-Evaluación y Control de Contaminantes, S.L.» sozietateak bidali duen dokumentazioa, 2013ko urtarrilean emandako ikastaroen garapenari eta ikasleek ateratako probetxuari buruzkoa. Ikastaroa ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaileentzat zen (maila gaitua).

Kontuan izan behar da Osasun Publikoko Zuzendaritzak baimena eman ziola «ECC-Evaluación y Control de Contaminantes, S.L.» sozietateari maila gaituko ikastaroak emateko (2012ko urriaren 8ko Ebazpena). Ebazpen hori, hain zuzen ere, abenduaren 21eko 257/2004 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko eman zen (257/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzen duena). Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumenerako eta elikagaien industriarako tratamendu bioziden aplikatzaile txartela –maila gaitukoa–, ebazpen honen eranskin modura doan zerrendako pertsonei emateko agintzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasuneko sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 13a.

Osasun Publikoko zuzendaria,
MARIA DORRONSORO IRAETA.

ERANSKINA

INGURUMENERAKO ETA ELIKAGAIEN INDUSTRIARAKO TRATAMENDU BIOZIDEN APLIKATZAILE TXARTELA (MAILA GAITUA) ESKURATZEKO BAIMENA EMAN ZAIENEN ZERRENDA

| Izena | 1. abizena | 2. abizena | NAN | Txartel-zenbakia |
|---|---|---|---|---|
| Pedro Ángel | Mantecón | Vayas | 20192450Z | 0007/2013 |
| Eduardo | Pola | Gutiérrez | 29128211E | 0008/2013 |
| Joana | Tello | Bilbao | 72317548M | 0009/2013 |